

ARRAUTZETARAKO HEGAZTI HAZKUNTZA EUROPAN 2012. URTEAREN ATARIAN

SARRERA

2012ko urtarrilaren 1etik aurrera debekatuta egongo da European oilo erruleak ohiko karioletan haztea. Horrek sektorea berregituratzea ekarri du.

El cambio de jaula convencional a jaula enriquecida



Fecha 1/1/2012
Fin de las baterías convencionales

-

Coste total:
> 600 Millones €

-

El sector español inmerso en la adaptación





Animalien Ongizateari buruz DG SANCOk 2011ko abenduaren 1ean eta 2an Bartzelonan antolatutako tailer praktikoan MMARMren (Esperanza Orellana) aurkezpeneko diapositiba.

Azkenaldian asko idatzi da gai horren inguruan. Nolanahi ere, interesgarria iruditu zaigu dokumentu bakar batean biltzea sektorearen egoera 2012. urtearen atarian, bai eta gaur egunera bitarteko garapena eta datozen urteetarako perspektibak ere.

Informazio gehiena "Selecciones avícolas" aldizkariaren 2011ko urriko aleko artikulua interesgarri batetik atera dugu. *Pascale Magdeleine, Veronique Gonnier eta Chrisine Jez (TeMA, 2011: 18, 17-23.)* dira artikulua egileak. Artikuluak laburbildu egiten du joan den martxoan Torus-en (Frantzia) egindako Hegazti-hazkuntza arloko Ikerketari buruzko IX. Jardunaldietako hitzaldi bat. Artikulu hori behin eta berriro ez errepikatzearen, horrela aipatuko dugu.

ZER ESKATZEN DU LEGEDIAK?

Europako legedia

Oilo erruleen ongizatea arautzen duen zuzentaraua, Europan indarrean dagoena, [Kontseiluaren 1999/74/CE Zuzentaraua da, 1999ko uztailearen 19koa, oilo erruleak babesteko oinarritzko arauak ezartzen dituena](#). Zuzentarau horrek aldarazi egiten ditu modu esanguratsuan animalia horien hazkuntza-baldintzak, batik bat, instalazioei dagokienez.

Zuzentarau honek honako hauek ezartzen ditu:

- 2003. urtetik aurrera debekatuta dago ohiko kaiolak (aberastu gabeak) instalatzea.
- 2007. urtetik aurrera derrigorrezkoak dira zenbait xedapen hazkuntza-sistema alternatibo guztietarako, alegia, kaiolak erabiltzen ez dituzten sistemetak.
- **2012ko urtarrilaren 1etik aurrera debekatuta egongo da Europa osoan ohiko kaiolak (aberastu gabeak) erabiltzea.**

Aintzat hartzen badugu duela gutxi arte oilo erruleen Europako instalazio gehienak ohiko kaiolak zirela, araudira egokitzeak aldaketa eta inbertsio ekonomiko eragin ditu.

Egokitzapena ohiko kaiolak baztertu eta kaiola egokituak edo hazkuntza-sistema alternatiboak erabiltzean datza.

Kaiolak



Kaiola aberastuak (ez ohikoak)

Honako hauek dira ohiko kaiolaren (aberastu gabeak) eta kaiola aberastuaren (ez ohikoak) arteko aldeak: kaiola aberastuetan oilo bakoitzak leku gehiago du eta barruan ekipamendu handiagoak dituzte. Kaiola aberastuek, besteak beste, habia eta kota, alegia, oiloak igotzeko katea izaten dituzte. Horiek lagundu egiten diote oiloei euren jarrera etologikoa garatzen.


Hazkuntza-sistema alternatiboak

Ohikoak ez diren hazkuntza-sistemak hartzen dira sistema alternatibotzat. Ohiko sistemek kaiolak erabili izan dituztenez, gaur egun alternatibotzat jotzen dira kaiolarik (ez ohikoak, ez aberastuak) erabiltzen ez duten sistemak.

Beraz, honako hauek dira sistema alternatiboak:

- Maila bakarreko lurreko hazkuntza.
- Hainbat mailatako lurreko hazkuntza, *hegazititegiak* deiturikoak.
- Kanpoaldera irteera dutenak: landakoak.

Lehenengo bi sistemek, maila bakarreko zein hainbat mailatako (*hegazititegiak*) lurreko hazkuntza-sistemek, landakoak deitzen dira baldin eta oiloek kanpoaldera ateratzeko aukera badute.



Kontsumitzeko arrautzak ekoizteko sistema nagusien argazkiak. Ricardo Cepero Brizek, Vanesa Verak eta Esteban Atxak utzitako argazkiak.

Ekoizpen ekologikoa ez da hazkuntza-sistema alternatibotzat hartzen, ezta zinegetikoa ere; beraz, bibliografian zein legedian, aparteko tratamendua izaten dute.

Estatu mailako legedia

Europako legedia [urtarrilaren 11ko 3/2002 Errege Dekretuaren](#) bidez aplikatu zen Espainiako legedian. Errege Dekretu horrek [oilo erruleak babesteko gutxieneko arauak ezartzen ditu](#). Hori da, beraz, Espainian indarrean dagoen arau-testua, eta bertan biltzen dira, oinarrian, Europako Zuzentarauaren xedapen berberak.

Aipatutako Errege Dekretua aldarazi egin du Espainian 773/2011 Errege Dekretuak, ekainaren 3koak. Dekretu horrek ezarri ditu zein diren egokitzapen-prozesuko etapak, egokitzapena eta ez-betetzeen aurreko zehapen-esparrua homogeneoak izan daitezen autonomia erkidego guztietan.

EKOIZPEN SISTEMEN BILAKAERA

Europa 1996-2010

Azken hamabost urteotan, ekoizpen-sistema alternatiboek bilakaera itzela izan dute Europar Batasunean. 1998an oilo erruleen % 8 baino ez zen ustiatzen sistema alternatiboen bidez; 2007an, berriz, ia-ia % 30 ustiatzen zen sistema horien bidez (bai eta ekologikoen bidez ere).

Espainia 2003-2010

Azpialdeko koadroan ikus daitekeen bezala, Espainian ere gora egin dute azken urteotan hazkuntza-sistema alternatiboek. Nolanahi ere, gorakada ez da izan Europakoa bezain nabarmena.

Aipagarria da lurreko sistemen gorakada. Duela zazpi urte 58 ustiategitan erabiltzen zuten lurreko sistema eta gaur egun 229 ustiategitan erabiltzen da. Landako sistemek ere gora egin dute (36 ustiategi izatetik 158 izatera pasatu dira epe berean).

Kaioretako sistemei dagokienez, berriz, 2003an ia 2.000 ustiategik erabiltzen zuten sistema hori, eta 2010ean 900ek.

	Urtea	Kaiolak	Lurra	Landakoak	Ekologikoak
Hegaztiak (milaka)	2003	45.337,1	237,2	193,1	25,1
	2006	45.365,1	486,1	634,2	92,8
	2008	45.163,8	754,4	805,8	96,9
	2010	42.157,4	749,2	1.066,4	45,7
Abeletxe-kopurua	2003	1936	58	36	21
	2006	1133	233	152	73
	2008	1073	170	162	60
	2010	903	229	158	54

Iturria: MARM-REGA 2010. Ricardo Cepero Brizek utzitako koadroa

EKOIZPEN SISTEMEN ETORKIZUNA

Hegazti-sektorearen bilakaeran, bai eta gaur egungo egoeran ere, eragina izango du animalien ongizate, animalien osasun eta ingurumen arloko Europako araudia betetzeak.

Epe luzera, aipatutako legedia betetzea ezinbestekoa izango bada ere, aintzat hartu beharko dira, batetik, animaliak elikatzeko lehengaien merkatuaren aldakortasuna eta, bestetik, OCMn (Merkatuaren Erakunde Bateratua) gauzatzen ari diren negoziaketen emaitzak; izan ere, horien arabera, Europako merkatua gehiago zabalduko litzateke eta muga-zergak desagertu egingo lirateke, gizartearen erosteko eta kontsumitzeko ohituren garapena bazter utzi gabe.

Beraz, sektorearen etorkizuna zalantzazkoa da; baina, baietsi egin daiteke ongizateari buruzko zuzentaraua betetzeak European arrautzetarako hegazti-hazkuntzan sistema alternatiboetara jotzea ekarriko duela.

Ilido horretan, bi bilakaera-erritmo bereiz ditzakegu: batetik, Ekialdeko herrialdeena eta Hego Europarena, eta, bestetik, Alemania eta Herbehereak bezalako herrialdeena. Alde horiek honako hauen ondorio dira: abiapuntuaren egoera, kontsumitzaileen eta merkatuaren eskaria eta Europako araudia herrialde bakoitzean aplikatzeko modua. Gainera, legediaren aplikazioa gizartearen eta merkatuen eskariaren arabera da.

Batetik, Ekialdeko herrialdeetan eta Hego European oraindik ezartzen ari dira animalien ongizateari buruzko araudia, eta inbertsioak ere orain egiten ari dira edo epe motzean egingo dira. Herrialde horietan gizartearen eta merkatuen eskaria, hazkuntza-sistema alternatiboek dagokienez, ez da beste herrialde batzuetan bezain indartsua.

Alemania –kontsumorako arrautzen Europako bosgarren ekoizlea– da araudia azkarren ezarri duten herrialdeetatik kasurik esanguratsuena. Oinarri dugun artikuluauren autoreek aipatzen duten iritzi aditu baten arabera, 2010. urtean Alemaniak sistema alternatibo bidez ekoizten zituen arrautzen % 90 baino gehiago (% 73 hegaztitegietan edo lurtean). Horrek ekoizpenaren behin-behineko beherakada ekarri zuen herrialde horretan 2008. eta 2009. urteen artean. Aintzat hartu behar da, iturri beraren arabera, 2008. urtean, Alemanian arrautzen % 40 ohiko kaiolen sistemaren bidez ekoizten zirela.

Alemaniarekin jarraituz, agintariek araudi-proposamena igorri diote Europar Batasunari; izan ere, araudia aldatzen ari dira eta aurreikusten da 2020. urtearen amaiera aldera arte baimenduko dela egokitutako kioletako (750 cm²-ko dentsitatea) ekoizpena 2002ko martxoaren aurretik baimendu ziren instalazioetan. Horren helburua da arrautzak ekoizteko kaiolak erabiltzeko sistemari amaiera-data jartzea. Herrialde horretan zenbait banaketa-katek ez dute baimentzen kioletako arrautzak saltzea euren banatzeko lineetan, eta egoera hori ekoizpena baldintzatzen ari da.

Frantzia —kontsumorako arrautzen lehenengo ekoizle europarra— eta Erresuma Batua —laugarren herrialdea— bezalako herrialdeetan ekoizpen-sistemak garatu egin dituzte Europako zuzentarauarekin bat, alegia, kontsumitzaileen hazkuntza-sistema alternatiboen aldeko eskarien gorakadarekin bat. Neurri berean, Italian ere garapena progresiboa izan da, baina motelagoa.

Oro har, zuzentarauak eragiten dituen herrialdeetan joera izango litzateke hazkuntza-sistema alternatiboek gora egitea.

Aurretik aipatutako artikulua arabera, garapen handiena Erresuma Batuan (aire zabaleko sistemetan) eta Herbehereetan (hegazitiegietako ekoizpen-sisteman) izatea espero da. Izan ere, herrialde horrek Alemaniaren joerari eutsiko lioke. Danimarka, Frantzia, Erresuma Batua, Belgika eta Espainia bezalako herrialdeetan kaiolen ordez, kaiola aberastuak erabiliko lituzkete.

ONDORIOAK

- ✓ Gaur egun teknika, egitura eta antolaketa arloko aldaketa ugari gauzatzen ari dira Europako hegazti erruleen hazkuntzako sektorean.
- ✓ Oro har, zuzentarauak eragiten dituen herrialdeetan joera izango da hazkuntza-sistema alternatiboek gora egitea.
- ✓ Nahiz eta hazkuntza-sistema horiek gora egiten jarraitu, ez da errealia pentsatzea horiek ohiko sistemak ordeztuko dituztenik, behinik behin, epe ertainean.